

Sagardoa kantari dator

TOLOSA ▶ Ainhoa Arteta soprano tolosarrak ireki zuen atzo sagardo denboraldia; «betidanik» gustatu zaio eta munduan zehar zabaldu du

P2-127



Ainhoa Arteta 2004ko uztako sagardo berria kupeletik hartzen atzo Astigarragak Petritegi sagardotegian. JON URBE/ARGAZKI PRESS

ERREDAKZIOA

Sagardoa «inoiz baino kantariagoa» datorrela esan zuten atzo bertsoetan Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariek Astigarragako Petritegi sagardotegian. Zergatik? Ainhoa Arteta soprano tolosarra izan zelako denboraldi irekiera ekitaldiko gonbidatu berezia.

«Betidanik gustatu izan zait sagardoa. Etxean beti izan dugu eta kanpora joaten naizenean beti zabaldu dut bere ize-

na, hemengo beste gauza asko bezala. Eta kanpotik etortzen diren lagunak beti sagardotegiren batera eramaten saiatzen naiz, gure ohiturak ezagut ditzaten», adierazi zien Artetak ekitaldian bildutako kazetari ugariei. Euskal edari honen enbaxadore ona aukeratu dute beraz aurten sagardogileek.

Kupela ireki eta lehen txotx egiteko unea ez zuten behar bezala harrapatu argazki eta telebista kamerek eta berriro hartu behar izan zuen sagardoa soprano tolosarrak. Urte-

roko «gure sagardo berria» hitz magikoak esan eta tragoxka eman zion. Edandako sagardoa —2004ko uztakoa— gustatu egin zitzaion.

Ondoren kazetariekin egingandako solasaldian gripe pixka batekin dagoela azaldu zuen Ainhoa Artetak, baina gustura agertu zen: «Eman dizkidaten sari eta oparien artean hau oso berezia da. Sagardogileek ni aukeratzea oso pozgarria izan da niretzat».

Bertsolariekin batera, txalapartarien eta aureskularien

saioa ere izan ziren Petritegi sagardotegian, sopranoaren omenez. Kazetariez gain, jende mordoak bildu zen. Ondoren bazkaria izan zuten sagardotegian bertan.

Aurreko urteetan, besteak beste, Abraham Olano txirrindulari anoetarra eta Xabi eta Mikel Alonso futbolari tolosarrak izan dira gonbidatuak ekitaldi honetan.

Aurten hamabost milioi litro egin dituzte sagardogileek, horietako erdiak Astigarraga inguruan.